

# NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN ERREFORMARI EZ LAN HITZARMENAK HEMEN NEGOZIATU!!!



**J**oan den ekainaren 10ean Espainiako gobernuak negoziazio kolektiboa erreformatzeko errege lege-dekretua onartu zuen. Urtebete eskas lehenago Zapaterok bide beretik jo zuen inposatu beste erreforma laboral bat ezartzeko; erreforma hau Kongresuan onetsi eta parlamentuko izapidearen ondorioz are okerragoa egin zuten. Oraingoan ere gauza bera gerta daiteke.

Ezin da onartu estatuan garatu den *elkarrizketa sozial* prozesua; emaitza hasieratik bertatik jakina zen: lan-baldintzak okertu egingo zirela. Gobernuak alde aurretik esan zuen erreforma egingo zuela, aldean arteko adostasuna iritsi ala ez, eta halaxe egin du. Prozesu honetan parte hartzen duten sindikatuek (CCOOek eta UGTk, alegia) erabaki hauei babesa ematen diete.

ELAK oso gaizki irizten dio negoziazio kolektiboaren erreformari. Onartu den dekretazoak jasotzen dituen puntu nagusiak honakoak dira:

■ **Negoiazio kolektiboa zentralizatzen da.**

Estatuko sektoreko hitzarmenetan erabakiko da lurralde-esparru bakoitzean zer negoziatu daitekeen eta zer ez. Esaterako, estatu-hitzarmen batek beste esparruetan hitzarmenak negoziatzeko aukera galaraz dezake edota edukiak baldintzatu. Gobernuak, espainiar sindikatuarekin bat zetorrela, iragarri zuen bere helburua piskanaka probintzia-hitzarmenak desageraraztea dela, eta ahalegin horretan ari da erreforma honekin.

■ **Enpresa-hitzarmenek sektorekoak baino baldintza okerragoak ezarri ditzakete.**

Funtsezko gaietan, hots, soldata, ordutegia, lanaldiaren banaketa eta beste batzuk, enpresa-hitzarmen batek sektoreko hitzarmenaren ezarritakoa aldatu ahal izango du, estatu-hitzarmenaren besterik esaten ez bada. Honela hedatu nahi dute sektore-hitzar-

mena ez aplikatzeko salbuespenaren erabilera, eta horrenbestez, lan-baldintzak okertzeko modua.

■ **Hitzarmenak negoziatzeko gehienezko epeak ezarri dituzte,** eta hauek akordioa iritsi gabe amaituz gero, derrigorrezko arbitrajea. Hitzarmen baten iraupena amaituta, 8 edo 14 hilabetera (iraupenaren arabera) akordiorik ez badago, indargabetuta geratuko da. Epe hau amaituta, espainiar gobernuak derrigorrezko arbitrajea inposatu du.

■ **Lan-malgutasuna eta enpresarien boterea areagotzen da.**

Besterik hitzartu ezean, lanaldiaren %5 modu irregularrean banatu ahal izango dute enpresak; hauen esku geratzen da lan-malgutasuna areagotzeko aukera.

■ Erreformak **Batzorde Paritarioari gaitasuna ematen dio amaitu gabeko hitzarmen baten edukiak eten-**

**gabe pobretzeko.**

Halaber, lan-baldintzen funtsezko aldaketak eta lan-malgutasuna ezartzeko eskumen berriak aitortzen dizkio. Kontua enpresarien boterea handitzea da, lan-baldintzak erabakitze aldera.

**Hori guztia ikusirik, ELAK honakoa adierazten du:**

■ Erreformaren aurka dago, soldatak erasotzeko helburuak presio guztia langileen aurka eramateen baitu. Hau eraso bortitza da, negoziazio kolektiboaren eta hitzarmenen egungo egituraren aurkakoa. Erreforma honek ez du enplegurik sortuko, eta lan-malgutasuna areagotu beharrik ez dago.

● Hego Euskal Herriko langileen eskubidea errespetatu behar da: hitzarmenak gure esparruan negoziatzea zor zaigu.

● Parlamentuko taldeei egiten die izapidean erreforma errefusa dezaten. Eraso honen ardura politikoa ez datza finantza-merkatuetan, politikariengan baizik, hauek ahalbideratzen baitute beren aldeko botoaz edo abstentzioaz erreforma aurrera ateratzea.

● Langileei dei egiten die erreformaren aurka mobilizazioetan parte har dezaten, baita murrizketei erantzutera ere, ekintza sindikala aktibatuz, lan-baldintzen hobekuntza aldarrikatzeko.

# NO A LA REFORMA DE LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA

## LAN HITZARMENAK HEMEN NEGOZIATU!



**E**l pasado 10 de junio, el gobierno español aprobó el Real Decreto Ley de reforma de la negociación colectiva. Faltaban sólo unos días para que se cumpliera un año desde que Zapatero utilizase el mismo procedimiento para imponer una nueva reforma laboral, que fue convalidada en el Congreso y emperorada en su posterior trámite parlamentario. La historia se puede repetir ahora.

Es inaceptable el proceso de *diálogo social* desarrollado en el estado, cuyo resultado era conocido de antemano: empeorar las condiciones de trabajo. El gobierno ya dijo que iba a aprobar la reforma con o sin consenso, y eso es lo que ha hecho. Las organizaciones sindicales que participan de ese diseño (CCOO y UGT) dan cobertura a estas decisiones.

Desde ELA hacemos una valoración muy negativa de la reforma de negociación colectiva. Los puntos más importantes recogidos en el decretazo aprobado son:

■ **La centralización de la negociación colectiva.** Se permite que en los convenios sectoriales estatales se decida lo que se puede negociar y lo que no en cada ámbito territorial. Así, un convenio estatal puede negar la posibilidad de negociar convenios en ámbitos inferiores o condicionar sus contenidos. El gobierno, de acuerdo con los sindicatos del estado español, anunció que su objetivo es eliminar poco a poco los convenios provinciales, y eso es lo que pretende con esta reforma.

■ **Los convenios de empresa pueden establecer condiciones inferiores a los del sector.** En materias tan importantes como el salario, el horario, la distribución del tiempo de trabajo u otras, un convenio de empresa podrá modificar lo que establezca un convenio sectorial, salvo que en el ámbito estatal se diga lo contrario. Se pretenden generalizar por esta vía

los descuelgues de los convenios sectoriales para empeorar las condiciones de trabajo.

■ **Se establecen plazos máximos para la negociación de los convenios y se impone el arbitraje obligatorio si no hay acuerdo.** Un convenio dejará de estar vigente tras 8 o 14 meses (según su duración) sin firmarse un nuevo acuerdo.

Finalizado este plazo el gobierno español ha impuesto el arbitraje obligatorio.

■ **Aumentar la flexibilidad laboral y el poder empresarial.** Salvo pacto en contrario, se establece un porcentaje del 5% de la jornada que podrá distribuirse de manera irregular, lo que implica aumentar la flexibilidad laboral a decisión de la empresa.

■ **La reforma da capacidad a la Comisión Paritaria para devolar permanentemente los contenidos de un convenio cuya vigencia no haya**

**finalizado.** También le atribuye nuevas funciones para la modificación sustancial de condiciones de trabajo y la flexibilidad laboral. Se trata de aumentar el poder empresarial para decidir las condiciones laborales.

**Por todo ello, ELA:**

- Rechaza esta reforma, ya que atacando los salarios pretende trasladar toda la presión contra los trabajadores y trabajadoras. Es un ataque frontal a la negociación colectiva y a la actual estructura de los convenios. Ni la reforma crea empleo ni es cierto que sea necesario aumentar la flexibilidad laboral.

- Exige que se respete el derecho de los trabajadores y trabajadoras de Hego Euskal Herria a negociar los convenios en nuestro ámbito.

- Hace un llamamiento a los grupos parlamentarios a rechazar la reforma en el trámite parlamentario. La responsabilidad política de este nuevo ataque no recae en los mercados financieros, sino en los políticos que con su voto a favor o su abstención favorezcan que la reforma salga adelante.

- Llama a los trabajadores y trabajadoras a secundar las movilizaciones contra la reforma, así como a dar respuesta a los recortes activando la acción sindical para reivindicar la mejora de las condiciones de trabajo.